

KULTURA 2.0 - Prestakuntza-pilulak: *gizarte-hedabideetan* arakatu eta monitorizatzeko tresnak 2011ko martxoa

Kultura 2.0, ekimenaren barruan, kultura 2.0 prestakuntza-pilulak prestatzen eta hedatzen hasi da Kulturaren Euskal Behatokia, EAEn kultura-sektoreko enpresek eta profesionalek egindako eskaerei erantzun zehatza emateko asmoz.

Ondorenean , gizarte-hedabideetan argitaratutako aipamen eta erreferentziak bilatu, arakatu eta monitorizatzeko tresnen aukeraketa bat aurkeztuko dizuegu.[1]

Addict-o-matic 	Tresna honek hainbat iturritan (bilatzaileetan, etiketatze-sistemetan…) bilaketak egin eta datuak orrialde pertsonalizatu bakar batean jasotzeko aukera eskaintzen du. Orrialde horretan bilaketaren emaitzak automatikoki eguneratuko direnez, bilaketa-orrialde pertsonalizatua sortzeko aukera ematen duela esan dezakegu. Emaitzak iturri edo gune zehatzetara mugatzeaz gain, nahi ditugun gizarte-sareetan partekatu ahal izango ditugu eta, horri esker, erabiltzaileak ez du zertan nabigatuko hainbat orrialde edo bilatzailetan. http://addictomatic.com/
Icerocket 	Bilatzaile honek online zerbitzuetan arakatzen du (blogetan, webguneetan, albistegietan, irudietan, twitterren, myspacen..) gure blogaren, gizarte-profilaren edo erabilitako bilaketa-hitzaren aipamenik ote duten. Gero, emaitzak iturri-motaren arabera sailkatu eta RSSren bidez eskuratzeko aukera ematen digu. Horretaz gain, zehaztuko dugun bilaketa-hitzei buruz epealdi zehatz batean webean zer joera dagoen jakiteko aplikazioa ere badauka, bai eta gure blogaren estatistikei buruzko zerbitzu bat ere (bisitak…). Azken zerbitzu hori eskuratu ahal izateko erabiltzaile erregistratua izan beharra dago. http://www.icerocket.com/
Socialmention 	100 online zerbitzu baino gehiagotan bilaketak egin eta erabilitako bilaketa-hitzek sarean duten eragina neurtzeko aukera ematen digu. Horretaz gain, bilaketaren emaitzaren balorazio-azterketa arin bat ere egiten du. Oosta elektronikoan geuk ezarritako hitzen aipamenen inguruko abisuak jaso ahal izango ditugu, geuk aukeratutako iturri-motaren arabera, eta emaitzak RSS bidez jarraitzeko moduan. http://www.socialmention.com/
Keotag 	Bilatzaileetan eta etiketatze-sistemetan (tagging-etan), guk zehaztutako hitzarekin etiketatuta sarean dauden sarrerak bilatzeko aukera ematen digu, eta emaitzak RSS bidez eskuratzeko aukerarekin, gainera. http://www.keotag.com/

1 Web 2.0n oinarritutako interneteko aplikazioak dira, edukiak sortu eta trukatzeko aukera ematen dutenak. Eskuarki, erabiltzaileek eurek sortzen dituzte informazioa nahiz edukiak.

Samepoint 	Bilatzaile honek Interneteko hainbat iturritan jasotakoa arakatzeko aukera ematen du (gizarte-hedabideetan, albisteetan, irudietan, bideoetan...), geuk ezarritako bilaketa-hitzen arabera. Emaitzak iturri-motaren arabera edo iturri zehatz baten arabera iragaz daitezke eta RSS bidez eguneratutako emaitzak eskura ditzakegu. http://www.samepoint.com/
Whostalking 	Guk ezarritako bilaketa-hitzen arabera, Interneteko hainbat iturritan argitaratutakoa biltzeko aukera ematen du; gainera, emaitzak iturri-motaren edo iturriaren arabera iragazten ditu. http://www.whostalkin.com/
Ubervu 	Nahi ditugun bilaketa-hitzen arabera, tresna honek gizarte-hedabideetan (blogetan, twitterren, gizarte-sareetan...) argitaratutako informazioa jasotzeko aukera ematen du, eta emaitzak "sentimenduaren" (positiboa/negatiboa) arabera sailkatuta agerrarazten ditu, azterketa estatistiko arin batekin batera. Zerbitzu hori eskuratu ahal izateko erabiltzaile erregistratua izan behar da, eta ez du RSS edo e-mail bidezko jakinarazpenik. http://www.ubervu.com/
Google alerts 	Nahi ditugun bilaketa-hitzak eta kontrolatu nahi ditugun iturriak zehaztu ondoren, web zerbitzu honek Interneten horri buruz argitaratutako artikulu edo albisteei buruzko alertak bidaliko dizkigu geure Gmail postara, aukeratutako gai edo albiste zehatzaren berri izan eta haren jarraipena egiteko moduan. Zerbitzu hori eskuratu ahal izateko, kontu bat eduki behar da googlen. http://www.google.com/alerts?hl=es
MonitorThis 	25 bilatzailetan bilaketak egiteko tresna. Emaitzak iturri-motaren arabera iragazi eta RSS bidez eguneratzeko aukera ere ematen du. http://monitorthis.77elements.com/

¿Kultura 2.0ren inguruko zer beste gai aipa genitzake hurrengo prestakuntza-piluletan? ahalik eta hobekien zehaztu)

Enviar al mail: kulturabehatokia@ej-gv.es